# GUTUNAK

## Ni ere Gasteizen izango nauzue

Euskaltzaindia zer den azaldu beharrik ez dago, eta politikaren alorrean norekin dabilen eta noren alde ez, argitu beharrik ere ez. Nekez soma dezake inork Euskaltzaindia HBren edo «violento» famatu horien alde jokatzen duenik. Salaburu, Knorr, Satrustegi, San Martin, Altuna, eta abar luze bat, oso nekez proposa daitezke abertzale «radical» gisa. Juan Carlos Erregeari egindako bisitak ere, üne kritiko batean egina, garbi erakusten du Bilboko erakunde ezagunaren jokabidearen «zuhurra». Eustat organizazioa, berriz, erabat da gobernamentala, jatorriz, egituraz eta finantzabidez. Eustat-ek estatistika egiten du. Erakunde teknikoa da bere jokamolde eta ekintzetan. Euskaltzaindia bera baino nekezago agian sar daiteke «violento»en eskuetan omen dauden organizazioen multzoan. Hala ere, eta Arabako hizkuntz egoeraz iritziak biltzekotan, Mario Onaindiaren kuttuna den PSOE-EE alderdiak (Buesarenak eta Redondo Terrerosena, bidebatez) garbiki esan du: Ez eta Ez. *Arte horretan*, euskara erabat nagusi den herrietan (zerrenda luze bat prestatzea ez da batere zaila) Osakidetza-ko zerbitzuetan euskaraz mintzatzea ezinezkoa da 1995ean. «En erderas por favor», erantzuten dute ongi eskolatuek. «¿Cómo dice uhté» diote gainerakoek. Gipuzkoan *bertan, euskaldunok lotsatuta* bizi gara, etengabe mila purrustada isilik jasan behar dugularik. Araban, zer esango? Mosqueraren mutilek «hablemos cristiano, como bien decía nuestro compatriota ferrolano» agindu lotsagabea zabaltzen duten unean? Edozein lekutan, baina Gasteizen bereziki, *beharrezkoa da euskaldunon ahotsa* ozenki entzutea.

**Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «Txillardegi»** (EHE)

## Aitzkibel

Oreretako "La Ilusión" eta "Euskadi Capital de la Luna X" deituriko taldeek Jaizkibel mendian burutzeko proiektu bat aurkeztu dute, 630 tamaina haundiko eskultura jartzea hain zuzen. Honek turismoa erakarri eta lanpostuak sortuko omen lituzke. Jaizkibel mendiko biztanle bezala, mendi honetan nahiko monumentu, eskultura natural edo harri *baditugula jakin arazi nahi nieke* talde hauei, eta hori adierazten duten izen toponimiko ugari topa ditzakegu, hala nola: Arriluze, Artxinar, Porrustarri, Ertxinarri, Sanjuanarri, Itzalarri, Txakillarri, Eperarri, Tximistarri, Txokolatearri, Kredoarri, Txingurriarri, Arriostueta, Arrigorrieta, Gastañarri, Apoarri, Sorriarri, Arluze, Arregi, Argibel, Arkautz, Sokoarri, Arkaitz, Laminarri, Xaxiarri, Artxabal, Arrikoxkor, Arrokaundieta, Arrobi, Arritxurieta, Arrutela, Arriurdineta, Artxano, Arribaldieta eta Ametsarri besteen artean. Era berean, ilargitik jeitsi *eta Jaizkibeli begiradatxo bat bota* bezain laister, honen aurkako erasoak etengabeak direla eta benetan falta nabarmenena zuhaitzena dela ohartuko gara. Eraso hauek moztu eta basoa bersortzeak zalantzarik gabe lekua pixtuko luke, lanpostuak ere sortuz. Gure indarrak mendi zainketaren bidean eman beharko genukeela diot.

**Aritz ARRILLAGA** (Lezo)

## Ararteko jaunari

Eskutitz honen bidez Irungo auzokide batzuk jasaten dugun egoera larri eta baztertuaren berri luzatzera gatozkizue. Honekin batera doakizu Udalaren ajolagabekeriak eta utzikeriak sorrarazi dituen hainbat eskutitz eta salaketaren fotokopiak, non argi eta garbi jasotzen den bizi dugun egoera larria. Bizi garen Elordiko gainera iristeko (120 metroko kotara) bi herribide soilik daude. Iparragirre baserrian barrena doan bidea eta Harrilaran-Eizagirre baserrien barrena doana. Hodiak bidez bide joateko bi hauetatik bat abuztua ezkeroztik moztuta dago, Iparragirre barrena doana, hain zuzen ere. Aurrenean mozketa hamabost bat eguneko baldin bazen ere, hiru hilabete iraun zuten bide barrena hodiak jartzen. Duela bi hilabete, bideko lanak bukatutzat eman zituztela. Tarte horretan Alkatearekin, Udaleko arduradunarekin eta obrako arduradunarekin auzokide kaltetuok, bilera izan genuen, eta hauexek esan zizkiguten: Hodiaren lanak bukatu bezain laister bidea lehen zegoen bezala erabilgarria jarriko zutela esan bazuten, gaur da eguna herribidea zati batean moztuta jarraitzen duela. Honek zer suposatzen du, ba auzokide batzuek oraindik, eta noiz arte jakin gabe, Harrilaran-Eizagirre baserrien barrenako bidetik joaten jarraitu behar dugula. Bide hau oso aldapa handikoa da, meharra eta bihurgune estuak direla medio ikuspen urrikoa da, eta kontutan harturik hormigonerak bota dituzten masa zipriztinak, arrisku handiko herribidea da. Honi, gehitzen badiogu gauden sasoia, hormatearekin arrisku potenziãl handian murgilduta gabiltza. Iparragirre baserria barrena doan herribidea zergatik ez duten oraindik erabilgarria jarri jakin nahian, abenduaren hilak 20, Ukalako alkate-orde eta herribideko arduradun den Joxean Eizagirrerekin auzo elkartean bilera bat izan genuen. Arazo honetaz bere ezjakinduria adierazi ondoren, ahaleginak egingo zituela, Txingudiko Urako gerentea den Miguel Angel Muñagorriri galdetzeko honen zergatiak. Handik aste betera, berriro berekin, baina oraingoan Udaleko egoitzan beste bilera bat izan genuen, Txingudiko Urako Miguel Angel Muñagorrik luzatu zion hitz epelak beste arrazoirik gabe, esan zizkigun. Berriro aurreko bileran bezala argi eta garbi utzi genion, ez dagoela arrazoi teknikorik herribidea ez konpontzeko, soilik Txingudiko Urako gerentea den Muñagorri erakusten duen arazoak konpontzeko borondate eza dela. Honekin batera Udalak adierazten dituen ajolagabekeria eta utzikeria. Gaur da eguna, ez dugula ezer jakin eta gauzak lehen bezala jarraitzen duela.Beste alde, Arazgailua eraikitzeko beharrezko eta publikoa den "Plan de Obra" delakoa auzokide bat Txingudiko Urako bulegora eskatzera joan zen, gerentea den Muñagorrik zera esan zion, ez dela publikoa eta nahi bagenuen Eusko Jaurlaritzara eskatzera joateko, auzokideak publikoa dela esan arren. Mesedez, jakin badakigu oso lanpetuta zaudela, baina istripu larri bat gertatu baino lehen eskertuko genizuke, zuk ahal duzuna ahaleginduko bazina, eta gure haserreak beste motatako ekintzak egitera behartu baino lehen.

**Mª Pilar EIZAGUIRRE** (Eta 16 auzokide kaltetuen sinadurak)

■

Gutun guztiak behar bezala izenpetu behar dira, egilearen izena eta bi abizen, NAN- eta telefono-zenbakiak ipiniz. Gehienez ere 15 lerro, lerro bakoitzak gehienez 65 tarte. Hau guztia kontuan izaten ez bada, moztu beharrean izango gara.

■

## ¿Polacos en Donostia?

Nunca nos lo hubiéramos creído. Pero sí. En nuestro último viaje a Donostia, en ocasión del día de San Sebastián, hemos podido ver cómo el cáncer anti-«polaco» también se extiende a tierras vascas. Estando en la barra de un céntrico hotel donostiarra con unos amigos catalanes, tuvimos que oír cómo una cuadrilla hacía comentarios jocosos sobre si en presencia de catalanes era peligroso que «se te cayera una moneda al suelo» (sic) y sobre que los «polacos» son «cerrados» al usar siempre su lengua, etcétera. Bueno, sepan los miembros de esta tan «jatorra» cuadrilla que por lo que hace al primer tema, se ha podido medir sin lugar a dudas nuestra «avaricia» gracias al hecho de coincidir últimamente maratones de recaudación de fondos para entidades caritativas en TV3 y Antena 3. Veamos. En Catalunya, con el 16% de la población del Estado, se recaudó más de un 250% más que en la totalidad del Estado para una finalidad parecida. ¿Es eso señal de avaricia generalizada? ¿No será que a los catalanes, ya desde tiempos de Quevedo, se nos ha querido crear una imagen «antipática» por ser diferentes, defender nuestra nación y hablar nuestro idioma? ¡Ah! Y respecto al segundo tema, el hecho de llamarnos despectivamente «polacos» tiene una calificación muy sencilla: racismo. Y eso que el pueblo polaco, como todos los pueblos, me merece todo los respetos del mundo. Por favor, no caigamos en viles tópicos. ¡Y menos en Donostia! Eskerrik asko.

**Ferran COLOMER** (Un polaco enamorado de Donostia. Barcelona)

## Las pistas de Abodi

En vista de la actitud poco dialogante de los responsables de dicho centro de ski nórdico, agradezco la oportunidad que brinda este medio para hacer algunas puntualizaciones respecto del domingo día 15 de enero practicando el fondo en Abodi. Obligado es reconocer que para los amantes de la naturaleza, que creo que somos todos/as los que practicamos el monte y el fondo, el espacio físico por donde está el trazado de algunas pistas es privilegiado. Pero lo que no es de recibo es que se nos tome el pelo pensando que somos como tontos, aunque sea con el «cómo». Y esto viene a cuento de que ese domingo pagué (sin que recibiera ningún aviso por su parte) religiosamente la entrada a dichas pistas, e incluso a una de dudosa legalidad, aunque controlada por personal del centro, ya que es la carretera que va al túnel del Ori, y dudo que, aunque haya nieve, se pueda privatizar una vía pública. Bueno, esto pasa y entramos en las mavarillosas pistas que van por el bosque, maravillosas si están cuidadas y en condiciones para no estropear los skis, pues resulta que huella marcada, de alguna forma la hay, pero tan descuidada y repleta de ramillas, hojarasca, musgo... que difícil se hace la practica del fondo, y más con el deterioro que para los skis supone marchar en esas condiciones. Esto es lo que quería comentar a los responsables, pero no parecían muy dispuestos a aceptar sugerencias (no hablamos del libro de reclamaciones). Desde aquí quiero sugerirles, como ellos mencionaron en alguna ocasión, que efectivamente contrasten otros centros de fondo en el Pirineo a ambos lados, y saquen consecuencias en cuanto a precio/calidad de servicio en las pistas.

**Joseba ARZELUS** (Zarautz)

LOPEZ & PEREZ

